

ERABAKIA, 2017ko EKAINAREN 2koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ARLOKO ALDI BATERAKO PREMIAK BETETZEARI BEGIRA HAUTAPEN PROZESURAKO DEIALDIA EGITEN DUENA HONAKO LAN-POLTSA HAU ZABALTZEKO: «JARDUERA ESPEZIFIKOETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA», ESPEZIALITATEA: MANTENTZE LANAK ETA PRODUKZIORAKO ZERBITZUAK.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat eduki behar du prest uneoro, lanpostuen zerrendako langileen ordezkapenak egiteko (edo sor litezkeen plaza hutsak betetzeko, legeak agintzen duen moduan bete arte) eta aldi baterako premiei erantzuteko.

2010eko martxoaren 26ko Akordioa, lan-poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan-poltsatako kideak ordenatzeari buruzkoa (2010eko ekainaren 8ko EHAA, 107. zk.), aldi baterako lanaren kudeaketa sustatu eta antolatzekeo tresna da unibertsitatean.

Akordioari jarraituz, administrazioak lan-poltsak berritu beharko ditu bertan lanerako moduan dauden pertsonen kopurua nahikoa ez denean beharrak betetzeko, edo, nahikoa izan arren, lan-poltsetan dauden pertsonak betetzen ez dituztenean kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak. Halakoetan unibertsitateak poltsak zabaltzeko hautapen prozesuetarako deialdiak egingo ditu.

Halaber, lan-poltsa berriak ere sortu ahal izango dira, egungoez bestelakoak, horretarako arrazoi objektibo eta bidezkorik badao eta unibertsitatearen intereserako hori beharrezkoa bada, profil profesional jakineko zenbait lanpostutan sor litezkeen premiak azkar eta egoki betetzeko.

Gaur egun agortuta dago IV. taldeko Mantentze Lanak eta Produktiorako Zerbitzuak espezialitateko «Jarduera Espezifikoko Teknikari Laguntzaileen» kategoria profesionaleko lan-poltsa, zeinetan kokatzen diren ikastegiko mantentze lanetarako lanpostua eta mantentze eta obretako laguntzaile lanpostua.

Ondorioz, Gerentzia honek, UPV/EHUko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiaz eman zaizkion eskumenak erabiliz (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAA), honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Hautapen prozesurako deialdia egitea Mantentze Lanak eta Produktiorako Zerbitzuak espezialitateko «Jarduera Espezifikoetarako Teknikari Laguntzaileen» lan-poltsa zabaltzeko, deialdiko oinarrien arabera (ikus erabaki honen I. eranskina).

Prozesu honetan hautatuak diren pertsonak hiru campusetako edozeinetan bete ahal izango dituzte zerbitzuak.

Bigarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta beraren kontra berraztertze-errekurtsoa jar daskioke gerentzia honi hilabeteko epean, edo, bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazio auzietarako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Erabakia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontaktzen epe biak.

Leioa, 2017ko ekainaren 2a


Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko GERENTEA

